# OSTADAR

2020/21



# SASI GUZTIEN GAINETIK

Azken denboraldi hau ziurgabetasunez beteriko urtea izan da; oraindik, pandemiaren eraginak jasaten ari gara, baina argi daukagu aurrera egin behar dugula eta beti baikortasunetik. Urte luzea izan da: protokoloak, murrizketak, ordutegien egokitzea, kirol lehiaketa kolektiboen eta entrenamenduen etetea... Guzti honek, izugarrizko lana eragin du elkartean. Egoera aldakorren aurrean izan duzuen pazientzia eta ulermena eskertu nahi dizuegu.

Kirol arloan, banakako kirolak izan dira gutxien kaltetuak. Atleta federatuek etenik gabe entrenatu ahal izan dute. Taldeko kirolek, berriz, etenaldiak izan dituzte eta entrenatzen jarraitzea izan da talde hauen helburu nagusia, tonu fisikoa eta mentala ez galtzeko.

Esparru ekonomikoan, urte gogorra, oso gogorra, maila guztietan doikuntza ekonomikoak izan ditugu. Irabazi asmorik gabeko kluba izaki, esparru batzuetan egitura profesionalizatua duena, oso zaila izan da oreka mantentzea. Gure babesleen laguntza ez dugu izan, beraien egoera ere ez baita batere ona izan eta. Gainera, erakundeetatik ez da kirolari sostengu ekonomikoa emateko planik bideratu, badirudi gai honekiko ez dagoela sentsibilitaterik.

Ala eta guztiz ere, baikorrak gara eta datorren denboraldia normaltasunez hastea espero dugu. Gainera, aurten, kirol-instalazio berriak egiten hasiko dira; benetan behar dira herri honetan. Espero dugu modernitatetik eraikitzea, eta gure herriko kirol-eskaera osoari erantzutea.

Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiegu klub honetan sinesten dutenei eta beren babesa erakusten diguten guztiei, Lasarte-Oriako betiko auzokoentzat, zein berrietako auzokideentzat egiten dugun kirol-eskaintzan sinesten dutenei.

Este ha sido un año de incertidumbre, pero tenemos que avanzar y siempre desde el optimismo. Un año de protocolos, restricciones, adaptaciones de horarios, suspensión de competiciones deportivas y entrenamientos. Todo ello ha supuesto un enorme trabajo en el Club. Queremos agradeceros vuestra paciencia y comprensión ante las situaciones tan cambiantes.

En el ámbito deportivo los menos afectados han sido los deportes individuales, en nuestro caso el atletismo, que ha podido seguir entrenando de una forma continuada, al menos en el ámbito federado. Los deportes colectivos, no han tenido ningún tipo de continuidad y el objetivo ha sido seguir entrenando.

En el ámbito económico, año duro, muy duro, con ajustes económicos a todos los niveles. Siendo un club sin ánimo de lucro, pero con una estructura en ciertos ámbitos profesional, ha sido muy difícil mantener el equilibrio. La sponsorización y el patrocinio ha sido totalmente inexistente, ya que tanto las empresas como la hostelería también han sufrido en este año. Añadido a esto, desde las instituciones no ha existido un plan de apoyo económico al deporte de base, parece que no hay sensibilidad en esta cuestión.

En este club somos optimistas, esperamos comenzar la próxima temporada con normalidad. Además, parece que las nuevas instalaciones deportivas empiezan a moverse. Esperamos que atiendan a toda la demanda deportiva local.

Finalmente, agradecer a todas las personas que creen en la oferta deportiva que hacemos para toda la localidad, desde Atsobakar hasta Oria pasando por todos los barrios, los de siempre y los nuevos.



# MILA ESKER PATXI!



Lerro hauetatik, Patxi Castrori eta haren bitartez, pandemia honen kalte gordinenak jasan dituzten Lasarte-Oriako familia guztiei omenaldia egin nahi diegu. Urriak espero genezakeen berririk txarrena ekarri zigun, gure lagunak, Patxikitok, kobidaren biktima, utzi gintuen. Kolpe gogorra izan da klub honentzat. Azken hamahirua urteotako futbol-ataleko zuzendaritzako kide izateaz gain, beti klubarekiko inplikazioa handia izan du: Lasarte-Oria Bai! Kros herrikoiaren sorreratik laguntzaile, Michelinen antolatzen genituen pala txapelketetan urte askotan lagundu eta parte hartu du, besteak beste. Klubaren dinamikatik at ere, gure udalerriko hainbat jardueretako kolaboratzea izan da (Santa Ana pala txapelketa, herri bazkariak...). Bai klubok, baita herriak ere, horrelako jarrera duten pertsonak behar ditugu, ekimenak aurrera atera ahal izateko. Patxikito gure leloaren adierazgarri da, "herriarekin eta herriarentzat".

Zutabe xume honetatik, Ostadar SKTri eskaini dion laguntza guztia eskertu nahi diogu eta gure besarkada zintzoena familia osoari.

Bihotzez, mila esker Patxi.

Desde la editorial de la revista anual queremos visivilizar y brindar este homenaje a Patxi Castro y a través de él, a todas las familias lasarte-oriatarras que han sufrido los estragos de esta pandemia de la forma más cruda, por tod@s. El mes de octubre nos trajo la peor noticia que podíamos esperar, nuestro amigo nos dejó víctima del covid. Golpe duro para este club, directivo de la sección de fútbol en los últimos trece años, siempre implicado con Ostadar, apoyando al cros desde sus orígenes, echando una mano en los campeonatos de pala que se disputaban en Michelín en los que también participaba. Colaborador en much@s de las actividades que se desarrollaban en nuestro Municipio (campeonato de pala de Santa Ana, comidas populares…). Ni los clubs, ni el pueblo, no estamos sobrados de personas con este talante. Patxikito es un ejemplo de nuestro lema, "con el pueblo y para el pueblo".

Vaya desde esta humilde columna el agradecimiento a toda una vida de apoyo incondicional a Ostadar SKT y nuestro apoyo más sincero a toda su familia.

Bihotzez, mila esker Patxi.







# BUENOS RESULTADOS EN UNA TEMPORADA COMPLICADA

**La temporada ha estado marcada y condicionada por la pandemia y la crisis sanitaria, social y económica. Una situación que como no podía ser de otra manera ha incidido en el deporte de una manera global. Han sido muchas las dificultades que hemos tenido que superar durante la temporada; pero, a pesar de todo, hemos seguido adelante con ilusión y optimismo adaptándonos a las nuevas circunstancias tan cambiantes y velando siempre por la seguridad y salud de nuestr@s deportistas.**

Nuestra prioridad ha sido mantener vivo el espíritu de equipo, seguir adelante a pesar de las circunstancias adversas y cambiantes, buscando soluciones y adaptándonos en cada momento.

La sección de atletismo tiene tres líneas de trabajo según la edad y objetivos de l@s atletas: escolares, federados y actividad lúdica no competitiva.

En la temporada actual nuestros atletas

**Más allá de los resultados**
El objetivo de la sección de atletismo es formar a l@s atletas más allá del aspecto deportivo, inculcándoles valores como la igualdad de género, el respeto, esfuerzo, compañerismo… En definitiva, formar a l@s atletas de una manera global. Por ello, puntualmente, los atletas más veteranos realizan una labor de apoyo con las categorías inferiores.







escolares no han podido entrenar con regularidad ya que, siguiendo las directrices del Gobierno Vasco, hemos tenido que suspender los entrenamientos en los momentos más críticos de la pandemia. Pero, atendiendo a la demanda de las familias, en el mes de julio, llevamos a cabo tres días por semana unas sesiones con los escolares con el fin de volver de forma progresiva a la normalidad a través del deporte. Tenemos la intención de repetir este verano el campus de atletismo con el objetivo de preparar a nuestros atletas más jóvenes de cara a la siguiente temporada.



Por otra parte, l@s atletas federad@s sí que han podido desarrollar sus entrenamientos y competiciones, siempre bajo un protocolo de prevención y con máximas medidas de seguridad e higiene.



**Resultados deportivos**
Teniendo en cuenta la situación en la cual han tenido que entrenar nuestros atletas, consideramos excelentes los resultados que han obtenido nuestr@s deportistas.

El pasado mes de febrero Naroa Furundarena nos dio la primera alegría de esta temporada al proclamarse campeona de España de Triple Salto Sub 23 en Valencia. Además se clasificó en 7º lugar en el Absoluto celebrado en Madrid (marzo).

Ohiana Igarriz y Maider Recondo también han brillado en los Campeonatos de Euskadi así como Enara González, Maider Abete, Leire Centeno, etc…

Esperemos que la próxima temporada mejore la situación actual y podamos seguir dedicándonos a trabajar con nuestr@s atletas.

En los próximos meses, tenemos grandes retos ya que a parte de los Campeonatos de España a los cuales acudiremos, tenemos previsto acudir por primera vez como Ostadar al Campeonato de Gipuzkoa por clubes. Además, el pasado día 15 de mayo, Naroa Furundarena mejoró sus marcas personales en longitud (5,86m) y triple (12,70m). Marcas que le abren la puerta para el Cto. de España Absoluto a celebrar en Getafe en el mes de Junio. Destacar que por primera vez Ostadar SKT acudirá a este campeonato con dos atletas, Maider Rekondo y Naroa. El 20 de junio Naroa también participará en Nerja en el Cto. de España Sub23 y confiamos, así mismo, que Enara Gonzalez alcance la marca en longitud que le permita acudir al Cto. de España Sub20.














# AURRERA GOAZ!

Aurtengo denboraldia ez da erraza izan inorentzat. Covid19-a gutxi balitz, hau ekiditeko neurriak har-tu behar izan ditu komertzio, klub zein elkarte orok. Horietako batzuk, gainera, gobernutik etorritako lege edo dekretuen ondorio gogorrak jasan behar izan dituzte eta kasu gehienetan aste batetik bestera aldatu dira gauzak.

Gure kasuan, klub bezala jasan ditugun talde kopuru moldaketak, entrenatzeko moduaren aldaketa, higiene neurriak bete beharra eta abarren ondorioak ez dira makalak izan, eta sekzio bezala zer esanik ez. Kirol egokituko sekzioan kirolari asko ez dira Lasarte-Oriakoak eta ondoko herrietatik (batzuetan urrutiagotik) etorri behar izaten dute beraiei egokitutako kirol aukera topatu ahal izateko. Konfinamendu perimetralak kalte asko egin digu, entrenamenduak gelditzeraino edo entrenamenduak eta hauen instalazioak aldatu behar izateraino. Txapelketak eta ekintza ezberdinak bertan behera gelditu izanak ere ez du egoera hobetzen lagundu.

Hala ere, gure kirolariei, familiei eta hauen pazientziari esker aurrera egitea lortu dugu, baita federazioen lana eta laguntzari esker ere. Guzti hauei eta harreman sare honi eskerrak eman nahi dizkiegu aurten inoiz baino gehiago, hauei esker entrenamenduak egiten jarraitzen dugulako egunez egun eta azkenik txapelketetan parte hartzen ari garelako, emaitza onak lortuaz gainera. Urte hau aurrekoa baino normalago bukatzen ari garelako (normala izatea ez da beti txarra izango).

MILA ESKER OSTADAR INKLUSIOA OSATZEN DUZUEN FAMILIARI!

















# IAZKO DENBORALDIKO ARANTZAK KENTZEN

Gure boleiboleko senior taldeak denboraldi honetan zehar aurrekoan bukatu ezin izan zuten lana osatu du; izan ere, iazko denboraldia hasi bezain laster, bertan behera geratu zen. Aurten, berriz, denboraldiak etenaldiak izan dituen arren, martxoan Gipuzkoako txapelketa martxan jarri da eta gure hamalau neskez osatutako taldea beste 8 talderekin batera lehiatu da. Asier Acuriolaren eskutik, teknikoki hobetzeko eta kirola probatzeko aukera paregabea izan dute.

Aurten, esfortzu handia egin dute bai entrenamenduetan, baita partiduetan ere, emaitza hobeak lortu aldera.





Gure neskek, talde ezberdinen aurka oso ondo borrokatzeko gai direla erakutsi digute eta horren froga haien aurtengo emaitzak ditugu: aste askotan zehar lehen postuan mantendu dira.

Talde baten osagai garrantzitsuenak ere aurkitu ditugu: adiskidetasuna eta motibazioa. Lehenengo momentutik, jokalariek taldean sinistu dute, bakoitzak dituen gaitasunetan zein taldearen osotasunaren gaitasunetan ere. Honela, txapelketan zehar topatu dituzten erronkei aurre egiteko tresnak lortu dituzte.

Datorren denboraldiari begira jarrita gaude. Beraz, boleibolean hasi edo sakondu nahi duenarentzat ateak zabalik daude!





# BUELTATU GARA!



**Urte bete taldeko jarduerarik gabe egon ondoren, Ipar Martxako taldea entrenamendu eta irteerekin hasi gara apirilean. Pandemiak eragindako egoera dela eta, taldeko kirol jarduera bertan behera uztea erabaki genuen, egoera hobetu arte. Beraz, jada martxan gaude!**

Azken urtean, ipar martxalariak banaka edo binaka aritu dira bastoiekin ibiltzen, baina falta botatzen genuen taldeko jarduera: entrenamenduak, teknifikazioa, irteerak, elkar ikustea… Txertaketak direla eta, intzidentzia tasa behera doala eta, entrenamendu eta irteerei ekitea erabaki dugu. Ipar martxa modu seguruan egin ahal izateko ondorengo neurriak hartzen ditugu: saioak hasi aurretik tenperatura hartu, seinakako taldetan aritzen gara, talde bakoitzak arduradun bat du eta irteerak inguruan izango dira bidaiak ekiditeko, besteak beste. Beraz, animatzen bazara entrenamendu egun eta orduak mantentzen ditugu aurten ere: asteazkenetan 19:00etan eta ostegun goizetan 10:00etan izango dira, zita Okendo atzeko Askatasun plazan.

**Irteerak**

Denok izugarrizko gogoa genuen elkar ikusteko eta ipar martxaz taldean gozatzeko, irteerek aukera paregabea eskaintzen dute horretarako. Apirilean Okendo plazatik abiatuta Txokoaldeko buelta egin genuen eta maiatzean Txaldatxurko lubakietara joan gara. Aurreratu dezakegu ekainaren 19an, 9:00etan Okendo plazatik irten eta "Lasarte-Oriako mugak" egingo ditugula.





Ipar martxako taldeko kideok ohiko jardueraz gain, herrian antolatzen diren hainbat ekimenetan parte hartzen dugu ahal dugun neurrin; baina, aurten, ez Gure Eskuko ekitaldirik, ez Korrikarik, ez sentsibilizazio kanpainarik, ez eta pazko asteko irteerarik, ezta Otsagabiara asteburu pasarik hango ipar martxa taldeko kideekin asteburuz gozatzeko. Ea hurrengo denboraldian ohiko jarduerari eltzeko aukera dugun.





# MOTIBAZIOA BELDURRAREN GAINETIK



Denboraldia amaitu da, baina noiz bait hasi ahal da? Urtero egiten dugun hausnarketaren ostean, argi daukagu aurtengoa izan dela bizi izan dugun denboraldirik zailena. Zer da kirola egitea? Gorputza mugitu, izerditu eta gustura gelditu... Ez, ez da hori bakarrik. Utzi emozioak azaleratzen entrenamendu bakoitzean, lehiaketa bakoitzean eta barnean ditugun sentimenduak kanporatu; poza, haserrea, amorrua... beharrezkoa baitira denak, ondo sentiarazteko gure gorputza eta buruarekin. Gainera, horiek aprobetxatzeko aukera ematen diguten entrenamendu edo lehiaketen jarrerak bideratzen ikasi behar dugu. Lehiaketa, zer da hori? Aurtengo denboraldian, talde gutxi batzuek lehiatzeko aukera izan dute.

***Motibazioa funtsezkoa***

Denboraldiko protagonista haundiena beldurra izan da; bizi izan dugun egoerarekin inork ez zekien zer zegoen ondo eginda eta zer gaizki. Jokalariak momentu oro hor egon dira maite dugun kirola egiten edo egin nahian, eta hori izan da motibazio haundiena betiko bidetik jarraitzeko. Denboraldi oso bat aste bukaerako saria eduki gabe, eta entrenamenduetan ahalik eta etekin haundiena atera nahi izatea, ez dago sentsazio hoberik entrenatzaile batentzat.

Talde batzuk zortedunak izan dira, lehiatu ahal izan dutelako: bederatzi taldeetatik eta saski eskolatik, soilik bost taldeek jolasteko aukera izan dute, eta amaieran soilik 3 taldeek amaitu ahal izan dute. Kirolaren beharra funtsezkoa da, batez ere garatzen hari diren pertsonentzat, bizitzako etapa desberdinei aurre egiteko.

Amaitzeko, bi mezu bidali nahi ditugu saskibaloi ataletik: batetik, Eusko Jaurlaritzak hartu dituen erabakien arabera, kirola eta kultura elkarrekin doazela esaten digute, baina kirola egiteko eskaini dizkiguten baldintzak ez direla zuzenak izan uste dugu. Momentu askotan kirolan genituen neurriak sendotu dituzte eta erabaki zorrotzak izan diren arren, onartu ditugu, naiz eta hauekin bat ez etorri. Bestetik, eskertu jokalariei beraien jarrerarengatik, lagundu diguzuen guraso guztiei, eta goraipatu gure entrenatzaile eta hezitzaileek egin duten lana, ikaragarria izan da. Herri honetan, kirolak jarraipena izango du zuei guztiei esker.

Gora Ostadar!



*Infantil Txikia*



*Errendimenduko Infantila*



*Parte hartzeko Kadetea*



*Errendimenduko Kadetea*



*Parte hartzeko Juniorra*



*Errendimenduko Juniorra*



*Senior 1go Probintziala*



*Senior 3.Probintziala*

# BELTZAK RUGBY TALDEA TRANSMITIENDO VALORES

**Rugby, deporte en el que se ensalzan los valores esenciales del trabajo en equipo como el compañerismo, respeto al rival y a los árbitros; compañerismo dentro y fuera del campo, priorizando el trabajo del grupo ante el individualismo; trabajo, esfuerzo y diversión. Es importante la aceptación de que la forma del cuerpo ideal para jugar a rugby es tan simple como que toda persona tiene el cuerpo perfecto, ya que por sus variables posiciones en el campo, el gordito, el bajo, el alto y espigado, así como el fortachón pueden jugar y disfrutar con sus compañeros.**

Y en Beltzak Rugby Eskola, se implante esa disciplina desde que los chavales tienen su primer contacto con el oval y el equipo. Aunque es obligado hablar del COVID 19 al haber sido el controlador de las jornadas de entrenamientos en el campo de Michelin y condicionado el no haber podido realizar jornadas con otras escuelas, la satisfacción que los txikis Beltzak reflejaban en sus caras el primer día que pudieron entrar a entrenar en el campo, indicaba que el "bicho" del rugby les va entrando por sus venas y los valores de este maravilloso deporte una vez aprendido se comparten y no se olvidan.



## Nuestra cantera

Aquellos que hace más de 10 años empezaron en la Eskola, ya pasaron la mayoría de edad y algunos ya se han iniciado en una dura temporada en la DHB estatal (División de Honor B). Jokin Beloki, Edu Lacalle y Beñat Arroyo prioritariamente, han sido los representantes de los Beltzak lasarte-oriatarras en el Okelan Zarautz/Beltzak. Temporada difícil, ya que la mayoría del equipo eran jóvenes valores que han tenido que competir en una liga plagada de jugadores argentinos, sudafricanos, georgianos etc. que militan en los diferentes equipos de la zona norte de esta segunda división nacional. Y han superado la prueba, han crecido en juego, en confianza en sí mismos y se entregaron en cada jornada de entrenamientos y partidos; en esos desplazamientos a Galicia, o Asturias, e incluso en Asti, Zarautz, donde debido al COVID no se les podía ir a animar; jugar sin el apoyo de sus amigos y aficionados y terminar los partidos sin la recompensa de ese aplauso del público. Ahora es el momento en el que, tras lograr la permanencia en la categoría con una espectacular segunda fase del campeonato, reciban el aliento de todos.



Los valores aprendidos en el campo permanecen, y hacen crecer a los jugadores, y eso hacen nuestros jóvenes; uno de ellos, Alex Saleta; su progresión en el Avirón Baionais, equipo del otro lado de la frontera del Bidasoa, se va manifestando cada día al contar con más minutos de juego en los partidos de Liga. Su grupo, conocido como Spoirs (Esperanzas), está formado por jugadores sub 23 de toda Francia, así como de lugares como Tonga y Georgia; jóvenes que físicamente son grandes deportistas y que viven el rugby con la misma intensidad que nuestro jugador Beltzak; jugadores que tienen todos el mismo objetivo, mejorar para obtener un lugar en la convocatoria del siguiente partido. Y en ello está Alex, jornadas de entrenamiento dobles, rutinas diarias de gimnasio combinado con estudios técnicos así como el idioma. Trabajo, esfuerzo y espíritu de superación; los valores aprendidos, permanecen.

## El rugby también es femenino

Paola Vega, nuestra jugadora que milita en el CRE Hernani, ha aumentado su propio valor personal logrando magnificarse en el campo; desarrollando juego con velocidad, descaro, y picardía ofensivamente y siendo clave desmontando ataques rivales y transmitiendo gran confianza a sus compañeras en labores defensivas. Su equipo, escaso en número de jugadoras, no se ha podido presentar a la competición de rugby XV que es la que prioriza la Euskal Liga, pero han competido en los formatos de rugby VII y rugby XII cuajando grandes actuaciones en ellas. El rugby femenino va demostrando día a día que este deporte no es solamente para chicos y que en el campo, el espectáculo del balón oval no tiene género y Paola es un claro exponente de ello.



## De jugador a árbitro

Los valores transmitidos en la Eskola basados en el respeto, se materializan con el respeto a las decisiones arbitrales; y en esas decisiones el que aumenta su valía es nuestro árbitro Jon Ibisate. Ha debutado en esta temporada como árbitro titular en 2ª División de Liga Vasca con 2 asistentes oficiales en las bandas. Su pasión por el rugby se manifestó en el juego de equipo, pero se consagró con llevar a cabo el cumplimiento de las normas de juego y poco a poco se ha ganado un lugar en el ámbito de los "réferes". Visitando los campos de la piel de toro como árbitro auxiliar, ha estado en finales de Copa y de Liga, así como en derbis de primer nivel como el disputado recientemente en Valladolid entre el VRAC Quesos Entrepinares y El Salvador, equipos líderes del rugby nacional.



Sus decisiones en jugadas comprometidas han sido determinantes en diversos encuentros, pero los valores aprendidos en Michelin a través de Beltzak Rugby Taldea, le han convertido en otra referencia para nuestras jóvenes promesas del balón oval.

La conocida como temporada del COVID, ha resultado ser un espejo donde los valores de nuestro deporte se han afianzado aún más, ya que gracias a ellos sabemos que el rugby en Lasarte-Oria disfruta de buena salud.

¡¡¡BELTZAK GAGNER!!!

# MENDIAZ GOZATZEKO URTEA



**Konfinamendua amaitzear zegoela gure mendizaleek bota atean zituzten prest, noiz irten zain. Inoiz baino gehiago mendira ibiltzera joateko beharra eta gogoa sentitu dugu askok, bai mendizale sutsuek baita mendizaleak ez direnek ere.**

Elkartean urteak daramagu mendiko lizentziak tramitatzen, urtero bataz beste 80 bat herritar federatzen ditugu, baina aurten lizentzien kopurua gora egin du nabarmen. Argi daukagu gorakada hau egoerak eragindakoa dela, batez ere, lizentzia edukitzeak gure herritik ateratzeko aukera eman duelako eremu gorrian egon garen bitartean. Joera hau ez da



gure elkartean bakarrik eman, federazioko datuek ere gora egin baitute. Herritar askok mendian ibiltzeak eskaintzen dituen onurak ezagutu dituzte eta honek mendizaletasuna piztu duela uste dugu. Horregatik, baikorrak gara eta aurrerantzean federatuak egon edo ez, uste dugu herritar askok mendiaz gozatuko dutela.

**Ekimen puntualik ez azken urtean**

Sekzioko kideek bakoitza bere kabuz ibili arren, atalaren izenean urtean zehar hainbat gauza antolatzen ditugu: batetik, Buruntzaldeako Ibilbideen egunean ibilbide gidatua egiten dugu; bestetik, Ttakun eta Arriskailetarekin batera, klasiko bat bilakatzen ari den



abenduak 31ko Buruntzako erromeria antolatzen dugu Azken urtean, ezin izan dugu horrelakorik antolatu, baina aurten Buruntzako erromeriarekin urteari agur esatea espero dugu.

**Web gunea denontzat**

Batzuetan mendira joan nahi dugu baina ez daukagu garbi nora joan, leku berriak ezagutu nahi ditugu, baina ez daukagu garbi nondik igo, zein den bide egokiena... Interesgarria iruditzen zaigu gure ezagutza beste elkarteko kideekin trukatu ahal izatea. Horretarako, Ostadarreko web gunea elkarteko mendizale guztiei ireki nahi diegu. Hau da, egin dituzuen irteeren berri edo ibilbideak proposatu nahi badituzue ostadar@ostadarskt.eus helbidera informazioa bidali (testua, argazkiak, wikilocekoloturak…) eta guk argitaratuko ditugu, gainontzeko kideek horien berri izan dezaten.



## ZIKLOTURISMOA



Ostadarreko **ZIKLOTURISTEK** gogoz ekin diote martxoan denboraldiari, iazkoa pixkat hankaz gora geratu baitzen. Aurtengo egutegia prest dute: Amezketako irteerarekin hasi eta urriaren 31n amaituko dute Larraulen; tartean Urreztila, Zegama, Ondarru, Intza, Bedaio... guztira 2374km egingo dituzte.
Animo ekipo!

## BOLOS Y TOCA

Los representantes de la sección suelen recorrer los diferentes pueblos de la provincia llevando nuestro nombre en las diferentes tiradas, ilusión no falta. Pero, llevan má de un año parados, sin entrenamientos, ni tiradas. Aunque la federación se plantea organizar algo, todavía no ha presentado ninguna propuesta. Siguen esperando... Y tanto de lo mismo en el ámbito local, ni tirada de San Pedro, ni memoriales.



## PORRA

Porrak berrikuntzekin etorri da aurtengoan: lau itzulietan parte hartzeko aukera dago (Euskal Herriko Itzulia, Giro, Tour eta Vuelta), webetik zuzenean egin eta ordaindu daiteke, sariak handiagoak dira, besteak beste. Porrari buruzko informazio guztia guztia gure web gunean eta sare sozialetan aurkituko duzue. Momentu honetan Giroko porra martxan dago. Baina, Tourrean parte hartu nahi baduzue, aurten pittin bat aurreratuko da, ekainaren 26an hasiko da. Beraz, adi egon!



## BAZKIDEAK

Gure bazkideen babesa ezinbestekoa da Ostadar SKT-ko kirol egitasmoa gauzatu ahal izateko. Horregatik, gurekin zaudetenoi eskerrak bihotzez zuen laguntza ematen jarraitzeagatik. Eta oraindik bazkide ez zaretenoi, kirol proiektu honen parte izatera gonbidatzen zaituztegu. Bulegoan informazioa jaso dezakezue. Urtero gabonetan otar bat zozketatzen dugu bazkide guztien artean. Aurten, Juan Pablo Navarrori egokitu zaio. Zorionak!



# FUTBOL ESKOLA OS-TA-DAAAAR!!!!



















# AUPA NESKA-MUTILAK!!!!

Aurtengo denboraldiari irailean ilusioz ekin genion, aurrekoa martxoan bertan behera geratu baitzen. Irailean, futbol federazioak egutegi desberdinak landu zituen txapelketei ekiteko eta lehen jardunaldia jolastu zen, baina bigarrena ez. Martxoan berriz, kadeteetatik gora partiduak jokatzeko aukera izan dute.

Baina, hasiera gazi-gozoa izan zen. Izan ere, urrian kolpe latza jaso genuen, Patxi Castro futboleko zuzendaritzako kidea zendu zenean.

Denboraldiko garapen osoa pandemiak baldintzatu du. Protokolo eta kontigentzi neurrien arabera aritu gara entrenatzen eta uneoro, gure jokalarien osasuna zaintzen ahalegindu gara. Lan neketsua eta zaila izan da, kontuan hartuta zein baldintzatan lan egin dugun eta zein egoeratan gauden. Denboraldi guztiz atipiko honetan, kirola ahalik eta baldintzarik onenetan egiten jarraitzea izan da garrantzitsuena eta gure helburu nagusia.

Pozgarria da Futbol-Eskolako haurren ilusioa ikustea; dendoraldi osoa topaketarik gabe aritu dira eta hala ere, asteazkenero gogoz etorri dira entrenatzera. Merezi izan du egindako ahaleginak. Martxoan talde federatuen lehiaketak hasi ziren, eta horiei esker, talde hauen motibazioa mantendu da. Ezer aurreratu gabe, datorren denboraldian "normaltasunez" arituko garela espero dugu.



*Alebina*



*Lehenengo Infantila*



*Infantil Txikia*



*Ohorezko Infantila*



*Erregionaleko Ohorezko Dibisioa*



*Lehenengo Kadetea*



*Lehenengo Kadetea*



*Ohorezko Kadetea*



*Lehenengo Jubenila*



*Lehenengo Jubenila*



*Ohorezko Jubenila*



*Erregionala*



*Preferentea*



# ANIMA ZAITEZ KIROLA EGITERA

## Anímate a hacer deporte con nosotr@s!




**21/22 DENBORALDIRAKO IZENA EMATEKO EPEA:**
**ekainaren 1etik 18ra**

**INSCRIPCIONES 21/22:**
**del 1 al 18 de junio**

www.ostadarskt.eus ostadarskt ostadarskt

OSTADAR S.K.T.

**OSTADAR SAIARRE KIROL TALDEAK**
eskerrak eman nahi dizkie, TXINTXARRI aldizkariari, TXEMA VALLESi eta baita gure babesle guztiei ere, denboraldi honetan eskainitako laguntzarengatik.

Lasarte-Oria Guk Kirola euskaraz